

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Santa Cruz del Fierron, "El Castillo" ehiza esparru intentsiboko instalazioetan tiro zelaia egiteko lurzoru urbanizaezinaren antolamendurako plan berezia. Planaren hasierako bertsioa eta ingurumenaren azterketa estrategikoa jendaurrean jarri eta kontsultak egiteko fasea

Iragarki honen bidez jakinarazten da udal honek, 2014ko apirilaren 29ko osoko bilkuran, hauxe erabaki duela:

Lehenengoa. Jendaurrean jartzea Santa Cruz del Fierron "El Castillo" ehiza esparru intentsiboko instalazioetan tiro zelaia egiteko lurzoru urbanizaezinaren antolamendurako plan bereziaren agiria eta haren ingurumenaren azterketa estrategikoa -Raul Lopez Lahoya nekazaritzako ingeniari teknikoak idatziak 2014ko urtarrilean, Jesus Toledo Lecetak eskatuta- berrogeita bost egun balioduneko epean iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aztertzeko udal idazkaritzan dagoen espediente eta egoki irizten diren iradokizunak eta alegazioak aurkeztu.

Errekurtsoak: Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka ezin izango da administrazio errekurtsorik aurkeztu, izapide egintza bat baino ez baita (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenaren, 107.1 artikulua).

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Berantevilla, 2016ko azaroaren 16a

Alkatea

JUAN ANTONIO SANTAMARIA FAJARDO